

DIRETSI ... HORTZAK. 2

Biharamunean, ametsetarik bere hortzekin borroka arizatik, bezperan baino ere hitsago jekiki zen; hertzetako sistak oinon saminago eginak zituen.

Adixkide zorbait haren ikustera hain xuxen ethorrik, bere nahigabea erran ziotela lañoki, erran ere, —irriz— burura nola jin zitzaion, hortzak iretsi othe zituen bederen, hek itzaltzarekin holako sabeleko mina hari lotzeko, gisa hortan...

Adixkideak hantxet zauden, irriz hantuak, eta irri hura sorde nahi eta ezin egin, elgarri keinuka eta zimikoka. Azkenean, hetarik batek erraiten dio maltzur maltzurra, haren aur denboran, gizon bat halaxet hil izan zela, hortz handi bat iretsirik, eta hortz harek hertzeak zilaturik. Bainan, orai-koan, holakorik ez zitaken. Hortzak oro iretsi balitu, balinba" ohartuko ahal zen, zer mila sorgin!...

Eta joan ziren adixkideak, etxerainoko irri izan baitzuten, arrats hartan, bidean.

Adixkideak joan eta, burua eskuetan harturik, xakurrari ostiko bat eman ondoan, gogoeta eta gogoeta gelditu zen Joanes: "Ez zen bertzerik! *Iretsiak* zituen hortzak; bai, jauna, iretsiak, eta, bezperaz getoztik, hertzen xilatzen ari zitzaizkon! Huna nun ziren, hortxet xilkotik? eskuinago. Erhien puntan aztatzen ere zituen orai... Zer zoria, harena! Akabo zen laster Joanesez, Jainko ona ez bazitzaion urrikaltzen...!"

Eta Jainko ona urrikaldu zitzaion berehala Joanesi. Hortzikare bat harturik, bere burua gehiago ezin jasanez, ohera doalarik, gogoratzen zaio hobe duela berehala medikuaren gana joaita, gero zer izanen bada ere.

Badoa beraz bere ganbaralat, puxka bat aldatu behar duela, medikuaren aintzinerat agertzeko. Igandetako soina hartzen du, eta berehala oihu-garrasia handi bat egiten: "Mariaño! Mariaño!..."

Eskuetan daukan soinaren sakelatik, pirripitaka erori da or zerbeit, Joanesen zangoetara...

—Mariaño! Mariaño! ... Hortzak!...

—Hortzak?... Nun?...

—Hortxet, sakela hortarik eroriak! Hobeki altxatzeko nihaurek hor emanak, dudarik ez da... Ai, ui, ui! Zoaz laster, Mariaño, eta oilasko bati lephoa bihurrozu eta zalu! Ai! ui! ui!

Eta irrintzinaka, dantza-motxetan hasten da Joanes, ganbararen inguruan. Eskapatu ez baliz, *sandangotian* beharko izanen zuen ari Mariañok, bere zaharrean oraino.

Oilaskoa egintxe zelarik, jautsi zen gure gizona, xoria bezen alegerarik. Balentriaka bezala, eta mendekioz ere bai, xakurrari joan zitzaion aintzinerara, bere hortz ederrak erakutsi beharrez. Kirrikan eman zen *Balu-jan*, bainan irriz hasi zitzaion nausia, eta irriz oraino jarri zen mahainean. Eta hantxet, oilasko guzia garbitu zuen, hartarik bederen ez baitzuten haren adixkide maltzurrek milikatu. Irulegiko arno hoberene-

Paregabekotik, flasko" bat hustu zuen oso-oso, eta, pipa-tara bat belhar ererrik bere hortz ederrren artean, ohera buruz abiatu zen errepika-xarameletan: Gaztetasunak bainerabila, airean ainhara bezala...

ELHEKETA: ASTE HUNTAKO ELHEPIDEA.

1. Joanesen adixkideak sinheskonak? ^{deia?}
2. Zer erabaki zuen Joanesek?
3. Joanes eri zena zinez?

III ADITZ IKASKUNTZA.

31. *Iretsi balitu* 32 Badoa
33. *Eskuetan daukan* 34 *Ez balitz.*

31. UKAN. Suppositif éventuel.
1^{re} Forme. (Ev. prochaine)

O. S.	Objet. pluriel
Nik banu (si je l'avais)	banitu (si je les'avais)
Hik bahu	bahitu
Zuk bazinu	bazinitu
Harek bahu	balitu
Guk bazinu	bazinitu
Zuek bazinitu	bazinituzte
Heiek balite etc	balituzte etc.

32. JOAN. Indicatif.

<u>Présent.</u>	<u>Imparfait.</u>
Ni noa (je vais)	nindoan
Hi hoo	hindoan
Zu zoatzi	zinoatziin
Hura doa	zoan
Gru goatzi	ginoatziin
Zuek zoazte	zinoazten
Heik doatzi	zoatziin

33. EDUKI, tenir Indicatif Présent

Hura = le, la.

Nik daukat	= je le tiens
Hik daukak in	= tu le tiens
Zuk daukazu	= vous le tenez
Harek dauka	= il le tiens
Guk daukazu	= nous le tenons
Zuek daukazu	= vous le tenez
Heiek daukate	= ils le tiennent.